



BEHAKETA-JARDUERA:

Objektuak beldur gabe marratzuz

Ikasle guztiek ez dute erraztasun bera marrazkiak egiteko. Ziurrenik, gelako ikasle askok dagoeneko uste du gaizki marrazten duela, eta arte-hezkuntzako ikasgaitik kanpo marrazketa ez du ezertarako erabiltzen. Beraz, baliteke marrazki bat egiteko eskatzen zienean ikasleek beldurra eta gogo falta izatea. Hori dela eta, beldurra galtzeko eta gogoak pizteko, ariketa anitz egin daitezke ikasgelan, hainbat erreferentzia-irudi erabiliz.

- Erreferentzia-irudia paperera begiratu gabe marraztea.
- Arkatza paperetik altxa gabe marraztea.

Bi ariketa sinple horien bidez, ikasleak erreferentzia-irudia edo objektuaren forma hobeto ezagutzen joango dira. Bestalde, paper zuriak sorturiko beldurra galtzeko ere baliagarri izango zaie jarduera hau.

Komeni da halakoetan ikasleei marrazkia egiteko materialak eta denbora mugatzea; adibidez, bi minutu emango dizkiegu arkatz batekin zerbait marrazteko.

GELAKO MATERIALAK

Eranskinetan, hala egindako marrazkien irudiak daude, nahi izanez gero gelan erabiltzeko. Hala, ikasleek argi izango dute haien lanetan zer eskatuko zaien.

KONTUAN IZAN

• HELBURUA

Beroketa-ariketen helburua gelan landuko diren gaien sarrera gisan jardutea da, ikasleen aurrezagutzak aktibatzeke, jakin-mina sortzeko edo beldurra galtzeko.

Kasu honetan, ikasleek saioan zehar zerbait marratzu beharko dutenez, beroketa-jardueren bidez behatutako objektu edo gaia paperean adierazteko beldurra galtzea da helburua.

• IKASLEEI ESKATZEN ZAIENA

Ikasleek egin beharreko lana 2 teknikak erabilita objektuak paperean irudikatzea izango da; batez ere behaketa lantzeko.